

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

Hilerriak onik zaintzeari dagokion tasaren 2019ko zerga erroldak jendaurrean jartzea

Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorraren 26.2. artikulua betetze aldera, hamabost egunez egongo dira jendaurrean jarrita 2019ko Hilerriak ongi zaintzeari dagokion tasaren errolda fiskalak, San Martineko udal bulegoetan — Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 behea —, aztertu eta egokitzat jotzen diren alegazioak egiterik izan dadin.

Orobat, errolda horietan jasotako likidazioen berri denei batera emateko funtzioa betetzen du ediktu honek, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 98.3 artikuluan xedatutakoaren ildotik.

Jendaurrean jarrita egongo den errolda horretan ageri diren likidazioen kontra berraztertzeke errekurtsua aurkeztu ahal izango da, Ogasun Arloko zinegotzi ordezkariari zuzendua, ordaintzeko borondatezko epean, edo hilabeteko epean borondatezko epea amaitu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Zerga ordaintzeko epea 2019ko martxoaren 14tik maiatzaren 14ra artekoa da.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko otsailaren 1ean

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO